

SAN JUAN EGUN BAT

Jendeak kontatzen du San Juan egunean gauza bitxi bat gertatu zela.

Urtero, egun horretan, San Juan Baselizan Altsasu herriak udako soltstizioa ospatzen zuen. Meza ondoren, lehenengo, sua pizten zuten eta bere inguruan dantzatzen zuten.

Urtero bezala, baseliza jendez beteta zegoen. Lehenengo dantzaria Luis Mari zen. Bera oso urduri zegoen, jende asko zegoelako.

Luis Marik pentsatzen zuen gaizki egingo zuela, dantzatzen ari zenean hanka altxatu eta lurrera eroriko zela uste zuen.

Horregatik, Luis Marik ardo taza bat edan zuen dantzatu aurretik.

Txistulariak musika jotzen hasi ziren. Maturanak txafleroa bota zuten.

Luis Mari zortzikoa dantzatzen hasi zen. Jendeak txalo asko egin zion.

Luis Mari, gogoberotu zen, hanka asko-asko altxatu zuen eta praka hautsi zitzaion. Baina... ez zuen galtzontilorik!!!!!!

Egileak:

Ione Fresneda, Laura Latorre, Iñaki Urrestarazu eta Marta Sanz